

SANJOANAK. Busturialdeko herrietan hainbat ekintza gertau dabez San Joan jaietarako

Sua, sorginak eta algarea

Ea herriko jai nagusiak gaur hasiko dira eta datorren asteko eguaztenera arte iraungo dabe

Iratxe Astuy |

Izpiritu txarrei atzea emoteko sasoi heldu da Busturialdera be. Izan be, eskualdeko herrietan hainbat ekintza gertau dabez, San Joan bezperako gaua suaren inguru ospatzeko.

Ea herrian, ganera, urteko jai nagusien ekintzen egitaraua hasiko dabe, gaur bertan, Mozorro egunagaz. Aurton, euskal jantziakaz soinean urtengo dabe kalera eatarrek. Txupinazoa 23:00etan izango da herriko plazan, eta gauerdian, Imuntzo eta Beloki bikoteagaz erremoria izango da. Goizaldeko ordu bat arte, Mozorro Ordua egingo dabe Ean. Hori dala eta, mozorrotuta dagozanentzat edariak prezio erdian ipiniko dabez. Mozorro txapelkeetaren sarien banaketea eta jokoak goizaldean egingo dira.

Bihar, bagilak 22, txupinazoren zaratea 10:00etan entzungo da. Egurdiko 13:30ean triki bertso poteoa egingo dabe herrian. Bitartean, txokoen arteko marmitako txapelketarako lapikoak gertetan ibiliko dira asko. Herri bazkaria 15:00etan izango da. Sardina jana 19:00etan izango da herriko plazan, eta jarraian, Aldatz Gora txarangearen musikeak alaituko dau giroa. Gauean, Bizargorri taldearen eskutikizango da erromeria.

San Joan bezpera egunean, domekan, txupinazoa 10:00etan izango da, eta arratsalde partean umeen jolasak egingo dabez. Pelota partidua 18:30ean hasiko dira. San Joan sua 23:00etan biztuko dabe Ean. Musika kontzertuak gaueko orduetararte luzatuko dira, gero.

San Joan eguneko txupinazoa bota eta gero, hilaren 24an meza nagusia egingo dabe,



EGUNKARIA

Imuntzo eta Beloki taldeak gaur bertan eskainiko dau kontzertua Ean.

EGITARAUA

Eako koadrilentzako jaietako egun handienetakoa hilaren 26an ospatuko dan Erreka Eguna izaten da

12:00etan. Ondoren, hamaiketako eta euskal dantzak ikusteko aukerea be izango da herriko frontoian.

Egun bateko atsedena hartu eta gero, Eako jaiak eguaztengan, bagilak 26an, jarraituko dabe. Jakina da, Erreka Eguna eatarrentzat jaietako handienetarikoa dana. Koadrilen arteko poteoa izaten da nagusi, goizetik gauera. Egurdiko 13:00etatik aurrera, Ardoa Barrura txarangeak herriko txoko guztiak alaituko dauz. Arratsaldean, errekaren inguru egingo da jai, eta 22:00etan Txatunga Benberen kontzertua hasiko da.

BUSTURIALDEA

Suaren garrak txoko guztietan

San Joan gaua Busturialdeko beste herrietan be ospatuko dabe. Mundakan, Lezako andrea agertuko da plazan, zantzo, irrintzi eta algara artean. Urtero lez, Talako suaren inguru sorgin dantzea egingo dabe iluntzean. Errigoitiko Mentxika auzoan be San Joan jaiak ospatuko dabez, bihar hasita eta hilak 25erarte. Asto eta idi probak, erromeriak eta dantza saioak izango dira nagusi.

Gernika-Lumoko San Joan Ibarra auzoan, umeen jolasakaz hasiko dabez San Joan jaiak, bihar, zapatuan. Euskal kantak eta bilbainadakaz dantzan egiteko aukerea be egongo da, Los Txikis taldearen eskutik, 22:00etan. Domekan, hilaren 23an, Elai-Alai dantzari taldeak San Joan eguneko dantzen erakustaldia egingo dabe, 19:00etan. Auzoan bertan, Bizkaiko kopla zaharran izango dira entzungai, Xabier Amuriza eta Michael Duceau-ren eskutik. Kantaldia, 20:00etan hasiko da. Gau partean, sua biztuteagaz batera, Arrano Kultur Alkartea eta Arbolapera taldearen eskutik sardina jana egingo dabe Santa Luzia auzoan, 21:30ean.

Bermeoko 14 sorginak sutera botako dabez 23:00etan, eta Alkartasuna dantza taldeak horren inguruan dantzauko dau. Abesbatzeak, San Joan kantak abestuko dauz. Dana dala, suaren aurretik, txistulari, trikitilari eta Bermeotarrak fanfarrea kalejiran ibiliko dira. Gibeles auzoan be jai hartuko dabe.

BERMEO

Eskola umeek ikasturte amaierako jaialdian hartuko dabe parte gaur

I.A. |

Eskualdeko hainbat umeek udako oporrak hartuko dabez gaurtik aurrera. Arrazoi horregaitik, urtero egiten danez, ikasturte amaierako jaialdia egingo dabe gaur Bermeoko eskola umeek.

Herriko eskola umeek egun osoan eukiko dabe jolasean ibilteko aukerea. Goiz partean, 10:00etatik aurrera hain zuzen be, ikastetxe baktxean ikustaldi desbardinak izango dira. «Edadearen arabera, eskola umeak ikastetxe baten edo bestean alkartuko dira. Antzerkia, pailazoak eta jolasak gertau doguz euren gozamenarako», azaldu dau Susana Regidor-ek, Bermeoko udal Kultur animatzaileak.

Lamerarainoko jaitsiereak egingo dabe

Ikastetxeetako ekintzak amaitzen diranean, benetakoa jai hasiko da Bermeoko eskola umeentzat. Fanfarreak 12:00etan urtengo dau herriko kaleak animetan, eta ume, guraso eta irakasleak Sabino Arana enparantzan batuko dira. Danak batera, Lamerarainoko jaitsierean hartuko dabe parte. Aurreskutan ibili ostean, irakaslegoari harrera ofiziala egingo deusie herriko udal agintarietara udaletxean bertan, egurdiko 14:00ak aldeira.

Arratsaldeko 16:00etatik 19:00etara, beste alde batetik, umeentzako parkea zabalduko dabe Lameran.

LABURREAN

GERNIKA-LUMO

‘Toda la biblia o casi’ antzezlanaren estreinatuko dabe gaur Liceon

Campingags SL taldearen eskutik, *Toda la biblia o casi* antzezlanaren estrenaldia egingo dabe gaur, Gernika-Lumoko Liceo Antzokian. Saioa 20:30ean hasiko da, eta sarrereak 8 euroan salduko dira. Gazte txartela euki ezkerro, euro bi merkeago balioko dabez. Patxi Barkok zuzendutako beharra hiru abade zelebrek egindako Testamendu Barri eta Zaharreko gertakizunen kontaketa berezia da. Barre egiteko obrea gatzelaniaz da.

BERMEO

Umeentzako ipuin kontaketa izango da arratsaldean, liburutegian

Bermeoko Joxe Miel Barandiaran udal liburutegiko arduradunak gertautu, umeentzako ipuin kontaketa saioa izango da gaur. Oraingoan, Alaitz Muro izango da ipuin kontalaria, eta bere saioa arratsaldeko 18:00etan hasiko da. Umeentzako ipuin kontaketa saioen programea ikasturtean zehar egiten dabe liburutegian, umeen artean irakurzaletasuna bultzatzeko asmoagaz. Nagusientzako be ipuin kontaketa saioak egiten dabez.

EA

Piraguismo ikastaroak gertau dauz Xakilixut Mendi Taldeak

Eako Xakilixut Mendi Taldeak piraguismo ikastaro bi gertau dauz udarako. Lehenengoko ikastaroa, hilaren 27tik 30era emongo dabe, eta 14 urte baino gitxiagoko umei zuzenduta egongo da. Bigarren ikastaroa, bestalde, 14 urte gorakoentzat izango da, eta garagarillaren 4, 5, 6, eta 7 egunetan emongo dabez eskolak. Hasibariak eguneko 16 euro ordaindu beharko dabez, eta hobekuntzakoek 24 euro egun baktxeko.

AGENDEA

GERNIKA-LUMO

Jardunaldiak: Bizkaiera eta erabilpena jardunaldien programazioaren barruan, Aita guria tituludun laburmetraia emongo dabe 19:00etan, Elai Alai aretoan..

Mendi urteera: Hilak 22an, zapatua, Goizale Mendi Taldeak gaueko ibilaldia gertau dau.

FORUA

Urteera: Hilak 26an, guaztena, Atxagas-era joateko urteera gertau dabe Kultur Etxekoek. Ibilaldian parte hartzeko, barriz, aurretik emon behar da izena.